



## **Herritarrekin adostutako trantsizio energetiko baten alde**

Lehenik eta behin, energia oinarrizko baliabide bat dela azpimarratu behar dugu. Hori horrela izanik, oligopolioen menpeko egungo sistema energetikoa, pertsonen beharretara baino gutxi batzuen negoziara egokituta dago. Eta ikuspegi jasangarri eta sozial batetik ere ez da bideragarria.

Izan ere, egungo kontsumo energetikoa erregai fosiletan oinarritzen da, berotegi efektuko gasak eragiten dituzten eta agortze bidean dauden lehengaietan, hain zuzen ere. Horregatik, beharrezkoa da, energiaren deskarbonizazioarekin batera, energia berriztagarriak eta garbiak erabiltzeko urrats irmoak egin eta politikak sustatzea.

Ukrainako gerrak are gehiago azalarazi du Euskal Herriak duen energia menpekotasuna. Hemen kontsumitzen dugun energia, munduko beste lekuetako egoera politikoek baldintzatzen dute, merkatuen menpe dago eta ondorioz, energiaren prezioa etengabe eta era bidegabean garestitzen ari da. Beti bezala, ondoriorik latzenak herritar xumeek pairatzen dituzte, noiz eta enpresa energetiko handiek inoiz izandako irabazi ekonomikorik handienak dituztenean.

Horregatik, trantsizio energetikoaren erronka premiazkoa eta urgentziazkoa da, datozen urteetan aldaketa handiak egiten ez badira, biodibertsitatearen galera itzela izango da eta ondorengo belaunaldien bizi baldintzak oso kalteberak izango dira.

Gauzak horrela, trantsizioak iraunkorra, berriztagarria, justua eta inklusiboa izan behar du, inor baztertu edo atzean utziko ez duena eta herritarren arteko berdintasuna bermatzea izango duena helburu.



Bide horretan, energiaren erronkari modu kolektiboan erantzutea funtsezkoa da. Eusko Legebiltzarrak etorkizuneko Energia Trantsizio eta Klima Aldaketari buruzko legean interesa duten herritarren parte-hartzea bermatzea bezain garrantzitsua da Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala behingoz egitea. Izan ere, badira hamar urte baino gehiago Eusko Legebiltzarrak aho batez eskatu zuela indarrean dagoen Eoliken Lurralde Plan Sektoriala berritzea. Eta hori gutxi ez balitz, 2019ko Jasangarritasun Energetikoaren legean ere Eusko Jaurlaritza bi urtetan aipatu Plan Sektoriala berritzera konprometitu zen. Trantsizio energetikoa euskal ekonomia deskarbonizatzeko estrategia baten baitan egin behar da eta hori, era adostuan, erregai fosilen alboratzea planifikatuz hasten da.

Beste behin ere, egoera honetara ekarri gaituzten politiketan erabateko aldaketa eman beharra dago, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak etxeko lanak egin gabe dituzte, eta udalok ditugun eskumenak gero eta urriagoak dira. Gainera, diru publikoarekin sortutako enpresa publiko estrategikoak, "Eolicas Euskadi" kasu, Iberdrola bezalako enpresa multinazionalen eskutan utziak izan dira.

Orain arte poliki eta gaizki egin dena, energiaren deskarbonizazioa eta energia berriztagarri eta garbietarako trantsizioa, presaka eta gaizki egiteko arriskua ikusten dugu. Hau horrela gertatu ez dadin, Zestoako Udalak gutxieneko bermeak eskatzen ditu, aurrean daukagun erronkari garaiz eta dagokion neurrian erantzun ahal izatea ezinbestekoa izango delako.

Hori guztia dela eta Zestoako Udalbatzak ondorengoa adierazten du:

1. Energia berriztagarriren edozein proiektuk ezaugarri edo oinarri jakin batzuk bete behar dituela uste du Zestoako Udalak:

- Planifikazio energetiko duin batek tokiko lurraldeari erantzun behar dio, Euskal Herriaren beharrezko energetikoei begirakoa izan behar du. Bertan ekoizten den energia bertan kontsumituz eta ingurumenari ahalik eta kalterik txikiena eraginaz.
- Energia prezio justuak eskaini behar ditu, herritarrentzat eta bertako jarduera ekonomikoarentzat eskuragarriak izango direnak.



- Herritarrekin modu kolektiboan hausnartuta eta adostuta egindako proiektua izan behar du, non naturaren kontserbazioaren alde lanean ari diren elkarte eta profesionalen iritziak jasoko diren.
- Kontrol publikoa duen sistema energetiko bat behar dugu, jabetza publiko-komunitarioan oinarrituko den eredua izango duena.

2. Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzari lehenbailehen Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartu dezala eskatzen dio, ahalik eta parte hartze eta gardentasun gehienarekin: norbanako, eragile zein udalon ekarpenak jasota.

Era berean, Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio tamaina handiko energia azpiegituren eraikuntzarik, Plan Sektoriala onartu aurretik ez dela hasiko berma dezala. Norabide horretan energia berriztagarrien planifikazioa gauzatu aurretik eta LPS berria onartu aurretik, Zestoako Udalak zentral eolikoaren eraikuntzarako aurkeztutako tramitaziorik ez du onartuko.

3. Energia Plan Nazional bat beharko genuke baina guri dagokigun lege esparruan, EAE mailako energia kontsumoaren eta hura murrizteko plana egikaritu eta hartan oinarrituriko Lurralde Plan Sektoriala egitea eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari. Hau egin gabe, intentsitate handiko zentral eolikoak era masiboan eraikitzen hastea ez da bidezkoa.

4. Zestoako Udalak herritarren partaidetzarako foro edo batzar bat eratzeko bere prestutasuna adierazten du. Bertan hausnarketa egiteaz gain, ezagutza eta ahalduntze kolektiboa helburu duen deliberazio prozesu bat eginaz. Herritarren arteko eztabaida sustatu eta adostasunak sortzeko aukerak landuaz. Klima aldaketaren eraginekiko jasangarriagoa izango den herri bat eraikitzeke egin behar diren eraldaketa handietarako konponbideak, modu justu eta solidarioan zeintzuk izan behar diren jakitea izango da xedea.

5. Zestoako Udalak, Piaspe egitasmoaren baitan zentral eolikorako osagaiak garraiatzeko proposatzen den bidearen inguruan, zeinak Akoa



ZESTOAKO UDALA

eta Santa Engrazi eremuak zeharkatuko lituzkeen, bere kezka eta ezinegona adierazten du. Izan ere, bide horrek nekazal eta abeltzaintza jarduerako herriko gune nagusietako bat nabarmen kaltetuko luke eta udalak bere kabuz egindako azterketen arabera, enpresa sustatzaileak emandako oinarritzko informazioa ez dela zuzena izan ere adierazi nahi du.

6. Zestoako Udalak gai honen inguruan hartutako erabakirik ez indargabetzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari.